

AZPIEGITURAK

Egubakoitza / 2006ko apirilaren 28a / GOIENKARIaren PUBLIZITATE GEHIGARRIA



DEBAGUIENA AURRERA

30 ETXEBIZITZA LIBRE

LEHENENGO FASEA

www.sukia.com
943 71 88 98

Informazioa eta salmenta - Aurretik hitzordua jarrita
Foruen Eparantza, 7 behea - 20560 Oñati (Gipuzkoa)

Etxebizitza guztiak terraza eta gutxienez 3 logelekin.

Kalitatezko etxebizitzak, material eta akabera onenekin, eta teknologiaren azken aurrerapenekin.

Zeure etxebizitza egokitzeko aukera: hasierako plantei egin nahi dizkiozun aldaketa guztiak aztertuko ditugu, ahal den neurrian elkarrekin egin ditzagun.



Perspektiba



Ikuspegia onenak

Etxebizitza guztiekin dute terraza hegoalderantz
(Etxeetatik izango den ikuspegiaren simulazioa)

Oñatin auzo barrixa: Ugarkalde

ETXEBIZITZA LIBREEN LEHEN FASEA

SUKIA
Zure etxeean zaude. Estás en tu casa.

■ TRANBIA DEBAGOIENEAN

Bergaratik Aretxabaletara tranbian, ordu erditxoan

JON BEREZIBAR

Ez da jauri bidezko garraioa berreskuratzeko ahaleginetan dabilta Jaurlaritza eta udalak. Atzerapen gehiagorik ez badago, maiatzean esleituko da ibarreko tranbiaren lehen zatiko traztuaren proiekta eta Bergaratik Aretxabaletarako linea 2010erako egongo da martxan eta horren ostean eraikiko dira gainontzeko bideak.

Eusko Jaurlaritzak tranbiaren alde egindako apustua argia da. Garraiobide "moderno, erakargarri, seguru eta garbi" moduan aurkeztuta, herrien arteko mugikortasun arazoaren konponbide bezala agertzen dute tranbia. Bilbon 2002an Atxuri eta Uribarrite auzoen arteko lotura egiten zuen linea ireki zutenetik hona, dagoeneko Gasteiz zein Leioan ere ikusiko dira etorkizun hurbilean Euskotrenen bagoi berde deigarriak. Etxetik gertuago, aspalditik da ezaguna Debarro osoa zeharkatuko duen proiekta, eta, epeak behar bezala betezerakoan, 2010erako martxan egotea espero da Bergara eta Aretxabaleta lotuko dituen zatia. Garraio mota iraunkorra ei da, zuzenean eragingo duena autoen erabileraren murriketan, hori da-eta arduradunek finkatzen duten helburu nagusia.

Ezbairik gabe, ibarreko herrien arteko garraiobideak gehien eraldatuko dituen proiekta da tranbiarena. Maiatzean esleituko du trazatuaren proiekta Jaurlaritzak, 750.000 euroko aurrekontuarekin, eta 10 hilabeteen marraztu beharko ditu planoak LKSk, hori egiteko aukeratutako enpresak. Gainerako xehetasunak, ordea, oraindik ezzagunak dira. Jaurlaritzak jakinarazi duenez, trazatua aldatu egin dute, baina horren berri oraindik ere ez da eman. Izan ere, hainbat udalek alegazioak aur-

keztu zituzten bere garaian eta erantzunaren zain daude. Dena dela, erabaki berriak jakin bezain laster informazio guztia jakinazko dela esan dutela azaldu die Jaurlaritzak udalei. Moldaketa garrantzitsuenak eskatu dituzten udalak Aretxabaletako eta Bergarako dira. Aretxabaletan Durana kaletik igaroko den zatiak arduratzen du udala gehien eta Bergarari dagokionez hainbat aldaketa proposatu dira Gabiriako gunean eta Labegarietatik igaroko litzatekeen zatian batik bat. Jaurlaritzaren jakinazpenaren zain gauza ia ziurra da proiektuan aldaketak egingo direla. Lanak hasteko, beraz, atzerapenak egongo dira, baina oraindik inork ez du datez hitzik egin. Ignacio Lakuntza Arrasateko alkateak urtarrilean adierazi bezala, "garrantzitsuena lanak hastea da" eta datorren urterako ei daude aurrekiusiak.

40 URTEREN OSTEAN

Urte horretan bertan, 2007an, gainera, historiaren kasualitatez edo zoriz, Euskadi eta Nafarroa lotzen zituen burdinbidea itxi zeneko 40. urteurrena beteko da. Joan den mendean Leintz aldeko garraiobideen bizkarrezurra izan zen hura, 1889an Gatzaga eta Gasteiz elkartzen zituen trenbidea ireki zenetik. Errailak 1918an iritsi ziren Arrasatera eta urtebeteko geroago Bergarara heldu zen trena. Kudeaketaren utzikerriagatik eta auto bidezko garraioari emandako lehentasunarenagatik, 60ko hamarkada amaierrako guztiz itxita zegoen trenbidea. Eta orain, bada, errepeideko garraioak sortutako arazoek errail bidezko alternatibetara itzultzea ekarri du.

IBARRA 40 MINUTUAN

Trenak azken bidaia egin zuela 40 urte beteko direnean tranbia berreskuratuko du Jaurlaritzak



Debagoienean. Aretxabaletatik Bergarara joango den zatiak (lehengoa egingo dena) 17,5 kilómetro izango ditu. Hain zuzen, hori da datorren urtean eraikitzen hastekotan dauden zatia, ibarra 33,6 minutuan zeharkatuko duena. Lehentasunik handien duen zatia ere huraxe da, gainera; izan ere, zirkulazio dentsi-

taterik handiena jasan ohi du tarte horrek. Kontuan hartzeko da, era berean, Debagoien osoa hartzen duela barne garraio-egitasmo horrek, eta, horregatik, aurreratu dutenez, tranbia iritsiko ez den herrietara autobusak ipiniko dituze maiztasun handiarekin. Tranbiak herri barruan batez beste bost minu-

Azken alegazioak aurkeztuta, proiektuaren aldaketen zain daude udalak

Autoek eragiten dituzten arazoei irtenbide moduan aurkezten dute tranbia

Datorren urterako lanean hasita egongo direla espero dute agintarieki

tuan behin izango du geltokia eta Aretxabaleta eta Arrasate herri erdi-erditik zeharkatuko diru. Hori dela-eta aldaketak egongo dira herri barruko bideen noranzkoetan eta zenbait berdegune eta espaloi estutu egin beharko dituzte. Era berean, tranbiaren trazatuaren asmoa da trenbide zaharraren bidea aprobatxatzea, eta horregatik bidegorrieta ere aldaketak egin beharko dituzte.

Moldaketa horiek guztiek, jakina denez, aparkaleku enaleko galea ere ekarriko dute herri guztietan. Aurten esleipenak bideratu eta trazatua marrazten bida, datorren urtean hasiko dira lanak eta lehen faseak hiru urte beharko dituela aurreikusten da, atzerapenak atzerapen. Aurkeztutako lehen proiektuari aldaketak egin ei dizkio Jaurlaritzak, eginiko alegazioak direla medio.

ORDU LAURDENEAN BEHIN TRANBIA BAT

Zerbitzua osorik martxan dagoenean hamabost minutuan behin igaroko da tranbia bat noranzko bakoitzean geralekuetik. Azkarren 80 kilometro orduko abiaduran ibiliko, da baina herri artean bakarrik. Oinezkoen guneetan 30 kilometro orduko abiadan ibiliko da. Bergaratik Aretxabaletara doan zatiak ia 16 kilometro izango ditu eta 34 minutuan egin ahal izango du ibilbidea. Geltokiei dagokienez, Arrasaten hamar egongo dira, Bergaran sei eta Aretxabaletan hiru. Guztira hamar tranbia egongo dira (horietatik bi erreserban) eta konboi bakoitzak 120 bidaia eraman ahal izango ditu gehienez ere. Hasiera baten egin dituzten kalkuluen arabera, urtean 4.200.000 erabiltzaile izango ditu Debagoineneko tranbiak.

BERGARA IPARRETIK LABEGARAIETARA

Bergarako iparraldeko industrialdean izango du lehen geltokia tranbiak, ezagutzen emandako azken proiektuaren arabera, eta Arrasate eta Aretxabaletako erdiguneak zeharkatuko diru. Bergaran industrialdetik Matxiategirantz joango da tranbia eta hurrengo geltokia Santa Marinan bertan izango du. Ibargarai kalean geltoki bat eta Torrekuan beste bat izango ditu eta tuneletik igarota, Mayc-eko biribilgunean ipiniko dute hurrengo geltokia. Zati horren inguruko alegazio asko jaso ditu Udalak. Handik Ozaetara joko du eta, trenbide zaharraren bidea hartuta, Arrasatera abiatuko da tranbia, gaur egun bidegorria igarotzen den leku beretik Elorregiraino, autobidearen azpian.

ARRASATE ETA ARETXABALETA LOTUTA

Epeletik sartuko da tranbia Arrasatera eta Elorregiko geralekuetik hurrengoa Eroski parean egongo da. Musakolan bertan, geltokia dagoen lekuaren ipiniko dute beste geltoki bat, gasolindegia parean. Hurrengoa Gelman egongo da, herriko erdigunera iritsi baino lehen. Maialko biribilguneak Correos parera eta handik Arbolapetara egingo du, Udalara igotzeko biribilguneak Unibertsitatera joateko. San Andres auzoan beste geraleku bat egongo da eta handik Aretxabaletara abiatuko da. Lehen fase honetako azken herria ere erditik zeharkatuko du tranbiak. Aretxabaletan, Otalora, Durana eta Mitarte kaleak ukituko ditu tranbiak, Gipuzkoa plazan azken geldialdia egin arte.

■ ELKARRIZKETA: JAVIER ZURRIARAIN / ERREPIDEETAKO DIPUTATUA

“Ingurumena asko zainduz egiten dihardugu autobidea”

JON BEREZIBAR

Azpiegituretan inbertsio garrantzsua egiten dabil azken urteotan Aldundia ibarrean. Berrikuntzen bizkarrezurra AP-1a izango da, Gasteiz eta Eibar lotuko dituen autobidea, baina horien inguruan zirkulazioa hobetzeko lanak ere eramango dituzte aurrera. Horiei guztiei buruz Javier Zurriarainekin hitz egin dugu, Azpiegiturako diputatuarekin.

Zelan doaz AP-1 autobideko lanak? Epeak betetzen ari dira?

Garrantzsua iruditzen zait zera gogora ekartzea: urte bi baino gutxiagoan Eibar eta Arrasate artean azken belaunaldiko autobide zati bat irekitzeko gauza izan garela, 15 kilometrokoa, Debarro osoa zeharkatzen duena. Oraindik ere gogoratzentut gure agintaldia hasi genuenean, 2008ko udan, AP-1ak urrutiko ametsa zirudiela, askok ez zuten uste irekitzea posible zenik... Orain AP-1aren erdia hor dagoen errealitatea da, herritarra handik igarotzen dira egunero. Autobidearen beste zatian, Arrasate eta Arabako mugak lotzen dituena, bere osotasunean dabilta lanean, 2008ko urtarriaren 1erako amaituta egoteko helburuarekin. Lanak ondo doaz, aurreikuspenak beteaz.

Arlabango tunela da une honetan egiten diharduzuen lanik konplexuena, ezta? Ondo doa dena?

Arlabango tunela, hobeto Izuzkitzakoa esaten badiogu, EAEko tunelik luzeena izango da, hiru kilometro baino gehiagoko luzerarekin. Ingeniaritza-lan oso konplexua da eta seguritate eta kontrol sistemari aurreratuenak izango ditu. Lanak erritmo onean doaz, arazo aipagarrikin gabe.

Zein da zuen balorazioa orain arte zabaldut diren zatien erabilerarena?

Zati baten bakarrak dago zabalik AP-1a. Ezin da ahaztu Eibar eta Gasteiz arteko autobidea dela eta, momentuz, Arrasateraino besterik ez dela heltzen. Goiz da balorazioa egiteko, osorik egon arte itxaron beharko da. Edozelan ere, behar bikoitz bat erantzuten dio azpiegitura honek: alde batetik, Gipuzkoako N-1-ari alternatiba eskaintzen dio, Europako Ipar-Hego ardatzari lotura bat emanda. Bestetik, Debako ibarrarekin lotura dago, ekonomikoki eta sozialki hain indartsua dena, komunikazio ardatz garrantzitsuenekin lotuaz. Azke-



GOENKARIA

Diputatuak dioenez, ibarreko azpiegituretako inbertsioa berebiziko izan da; AP-1 autobiderako bakarrik, 600 milioi euro.

“Gipuzkoako gizartearrentzat ahalegin itzela izan da lan hauetan egin ahal izatea”

nean, AP-1ak Arrasate Donostiarrekin 45 minutura uzten du edo Bergara Gasteizekin minuto gutxian lotu. Hortaz, zalantzarik ez dut, oso erabilia izango da, bai enpresen aldetik zein norbanakoek. Era berean, ez da ahaztu behar Gipuzkoako gizarteak lanekin egiten duen ahalegin itzela, hark bakarrik ordaintzen ditu eta lanak: 600 milioi euroko inbertsioa da, 100.000 milioi pezeta. Hori guztia orografia benetan zailean kokatu behar da, lurrarde lauagoan lan hori erdia ere ez litzateke-eta kostatuko. Debagoienaren amets bat beteko da.

“Ekonomikoko hain indartsua den ibarra Europako ardatz batekin lotuko du AP-1ak”

Oraintsu sortu da plataforma bat Debagoienean izena Onbide daukana (Eskoriatza-kо kaltetuek, Arrasatekoek eta Aretxabaletakoek sortua). Besteak beste, sortu dute “ahalelik eta azpiegitura lan hoberenak egin daitezten”, euren esanetan. Zer deritzozu?

Kalitatea eta ingurumenarekiko errespetua bermatzeko parametrik zorrotzenekin proiektatu eta exekutatu da AP-1a. **Epele-Kaskonategiko zabaliketa dela-eta, zirkulazio arazoak egon dira. Zabaliketa-rekin konponduko dira?**

“Arrasatek dauka Gipuzkoako auto erabileraren ratiorek handiena; hori arazoa da”

Zalantza barik, lanek era-gindako eragozpenak haindik amaierarekin bukatuko dira. Beste kontu bat da Debagoieneko mugikortasunaren arazoa. Arrasatek Gipuzkoako auto erabileraren ratio altuena dauka, milaka lagun handik sartu eta irteten dira, nor bere autoarekin lanera joateko. Tranbiak eta garraio publikoek arazo hau konpondzen lagundu beharko dute datozen urteetan, gizartean joera hau aldatuz, ingurugiroari dagokionez eutsiezina dena. Txipa ez da Debagoienean bakarrik aldatu beharko, baina

hemen ere bai. Arazo garantzitsua da.

Noiz inauguratuko da zati hori, badago datarik?

Aurreikuspenak betez gero, GI-727 bi erreikoa izatea bi noranzkoetan, Epele eta Kaskonategi arteko, maiatzaren bigarren asterako ireki ahal izango da. Eguraldiak izango du eragina, azken ukituen txanda da-eta, aglomeratua eta errepideko markak egingo dira, eta horretarako giro ona beharrezkoa da.

Epe laburrean, bestelako azpiegitutarik baduzue pensatua Debagoienerako?

Debagoienean hainbat azpiegituraren eraikuntza lana egin da, asmo handikoa, eta ez dakit eskualderik badagoen horrelako lan konplexurik egin denik. Eibar-Gasteiz autobideaz gain, Elgeta eta Zubillaga arteko saihestidea ireki dugu, Elgetako bihurguneak konpondu ditugu eta makina bat lan egin dugu bigarren mailako bideak konpontzen. Datozen proiektu handiak Arrasateko mendebaldeko saihestidea, Olandixoko tunelarekin, eta Urretxu-Bergara zatikoak izango dira, AP-1ekin lotura egingo duena. 2008an hasiko dira lanak eta 2010ean amaitu, 100 milioiko kostuarekin. Tamaina handiko lanak dira.

Zer onura ekarriko ditu Olandixoko saihestidea?

Debako ibarra eta Aramaikoa hobeto komunikatuko ditu eta Arrasateko barruko zirkulazioari onura nabariak ekarriko dizkio. Uste dut gogo biziz espero dela lan hau Arrasaten.

Autobideak ez die trabarik egingo bidegorriei, tranbiaren trazatuari...?

Hain zuzen ere, trazatu lanak egoera guziak kontuan hartuta egiten dira. Oso proiektu helduak dira, inprobisaziorako lekurik ez dago.

Beasain-Durango autobideko Bergarako zatia ere bi bidekoia izango da?

Lau biderekin proiektatu dugu guk, bidea binako galtzadakin, haren luzera guztian. Errepide hori gutxi gorabehera zelan geratuko den ikusi gura izanez gero, Ormaiztegi-Zumarraga zatia da adibide bat, iaz irekia.

Zelan doaz errepide transbertsal horretako lanak?

Iaz zabaldut genuen Ormaiztegi-Zumarraga zatia. Urte amaiera baino lehen bigarren zatiarekin hasiko dira, Zumarraga-Urretxu saihestidearekin, 2008rako amaituko dutena. Orduan, azken zatiarekin hasiko dira, Urretxu-Bergara bitarteko, 2010erako bukatu gura dena.



GOIENKARIA

Arrasateko Uribarri auzoan kokatuko da Garaia berrikuntza poloa eta lehen eraikina udazkenerako nahi dute bukatu.

■ GARAIA EGITASMOA

Puntako ikerkuntza eta enpresen garapena batera

JON BEREZIBAR

Zamudio, Miramon eta Miñon bezala, eraikitzentzian Garaia berrikuntza poloak euskal parke teknologikoen sarea osatuko du. 1.300 ikerlarirekin eta enpresendako lekuvekin ikerkuntza eta lehiakortasuna sustatu nahi da, unibertsitatearen gerutu kolaborazioarekin. Uribarri auzoan 440.000 metro koadro izango ditu.

Unibertsitatearen eta parke teknologikoen arteko elkarlanan etekina atera gura dio Garaia egitasmoak. Bi munduen arteko hartu-emana sustatz, ikerkuntza eta enpresen lehiakortasuna bultzatu nahi da, bi eremu esperientzian sakonduta. Arrasateko Uribarri auzoan bertan egongo da parkea eta unibertsitatetik gertutasun horrek alor akademikoko abantailailez aprobatzatzen lagunduko dio. Hoge bat ikerkuntza-zentro, institutuak eta unibertsitate-laborategiak izango dute lekuak han, 1.300 bat ikerlarirekin. Berrikuntza poloak, 2004an eraikitzen hasi zena, 500.000 metro koadro izango ditu bere instalazioetan, MUko garapen sailak, ikerkuntza institutuak eta enpresen ikerkuntza guneak hartzeko. MCC, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiaren inbertsioa da eta bospasei

urtean lanak amaituta izatea espero dute sustatzaileek. Jarduerari dagokionez, hamar bat urteko epea aurreikusten dute arduradunek berrikuntza poloa bere gaitasun guztiarekin lanean ibiltzeko.

LEHEN ERAIKINA UDAZKENERAKO

Hala, urrirako prest izan nahi dute berrikuntza enpresendako lehen eraikin modularra. Lehen faseko lanen ardatza izango da hori, eta, 10.000 metro koadroko eraikuntzaz gain, beste 100.000 metro koadro urbanizatuko dituz-


te. Horretarako inbertsioa 20 milioi eurokoa izango da. Garaiatik bertatik jakinarazitako datuen arabera, uneotan edukiera osoaren %40 dago erreserbatuta. Bigarren faseko lanek 2010era bitarte iraungo dute eta

26 milioi euroko aurrekontua izango dute. Hala ere, urbanizazio lanekin bost bat urtean amaitu gura da, parke teknologikoak Arrasateko hirigunearekin lotura eta harremana izatea du-eta helburu. Horren harira, 180 etxe-

bizitza egingo dituzte, horietako 40 babes ofizialekoak izango direnak. Momentuz, Fagor Ederlan enpresako Edertek ikerkuntza sailak lortu du bere bulegoak han ipintzeko lizenzia, baina erreserbak martxa onean doaz. Uneotan Garaiatik ahalegin berezia egiten dabilta enpresek ikerkuntza sailak ateratzen eta teknologia parkera ekar ditzaten. Berrikuntza poloak ahalmen osoarekin funtzionatzeko, berriz, hamar bat urte itxaron beharko da, nahiz eta lanak, oso-osorik, 2009rako amaituko dituzten.

Enpresen ikerkuntza sailak Garaiara eramatea da helburua

Unibertsitateko jakintzarekin elikatu ahal izango dira enpresak



Enpresa berritzaileak hartuko dituen eraikinaren marrazkia. Eraikin hori eraikitzentzian dihardute eta urrirako prest egongo da.

GOIENKARIA



LKS enpresako Enrike Elkoroberezibar bergararra arduratu da Arrasateko saihesbide berriaren eta Olandixoko tunelaren marrazketa proiektua zuzentzeaz.

JON BEREZIBAR

■ ELKARRIZKETA: ENRIKE ELKOROBEREZIBAR / LKS-KO INGENIARIA

“Eguneko hiru zirkulazio-gailurrik desagertuko dira”

JON BEREZIBAR

Auto-pilaketa itzelak sortzen dira egunero Arrasaten, puntako orduetan, Garagartzarako bidetik erdialderaino. Hori konpontzeko, datorren urtean ekingo diete Uribe auzoan hasi eta Mecaraino joango den saihesbideko lanei, Olandixo mendi zeharkatuta.

Idazketa lanetan ibili zarete orain arte; zein izango da hurrengo pausoia?

Joan den astean aurkeztu genion lanaren agiria Jauralariatzari eta hortik aurrera zortzi hilabete ditugu proiektuarekin hasteko. Horrenbestez, gure asmoa da datorren urtean hastea.

Zeintzuk izango dira tratatu horren eta lanen elementurik nabarmenenak?

Bi kilometro luze izango da, gutxi gorabehera, eta biribilgune bi izango ditu. Horietako bat Mecako tailerrak pasatu ostean, Aretxabaletako saihesbidera sartzeko Zubia dagoen lekuaren egongo da. Zubia zabaldu egingo dugu eta Zubian eta errepi-dean biribilgune berri-berria egingo dugu. SAIHESBIDEAK men-

di azpitik jarraituko du. Tunelak 880 bat metroko luzera izango du eta Trefasa ostean amaituko da. Hantxe, Aramaio erre-karen gainetik Zubia egongo da eta zuzenean joango da errepi-deraino bigarren biribilgune batekin.

Eibar-Gasteiz autobidea-rekin loturarik bai?

Ez, ez du zerikusirik. SAIHESBIDE berriak gaur egun dauden bideekin egiten du lotura, gainontzekoekin ez du harremanik. Helburua herriko bertako zirkulazioari irtenbidean emateada, Arrasaten bertan; ez du autobidearekin loturarik izango.

Zailtasun handiko lanak izango dira?

Lurren kontuarengatik tunela egitea erraz-erraza ez da izango, aurretiaz bagenekien hori. Trazaturako, aurrez finkatuta zegoen bideak nondik nora egin

behar zuen. Tartean bageneukan bideak nola zeharkatu behar zuen erabakitzeko marjina. Tunela oso luzea edo laburragoa izan zitekeen eta azkenean motzagoa egitea erabaki dugu. Beste auke-rra tunel luzea egitea zen, baina biribilguneendako ia tarterik ez zuen uzten eta horregatik alda-tu genuen. Maniobra asko egin dira diseinatzeko orduan.

Lur asko mugitza eska-tzen du proiektuak?

Bai; izan ere, tuneletik Aretxabaleta sarrerako biribilgu-nerainoko ezpondak nahiko handiak dira eta moldaketa asko egin behar dira. Aurrekontuetan sail garrantzitsu bat lur mugitze horietarako izango da. Hau da, lur aldaketa horietan zuhaitzak eta antzerakoak jartzeko, alda-keta handia dakar-eta horrek paisaian. Hori dela-eta, lanen eraginak konpondu eta ikuspe-

gia hobetzeko, lur vegetala sartuz, oso partida handia aurrei-kusten da dagoeneko. Leku batzuetan ebakiko diren baso-zatiak oso handiak izango dire-la badakigu, eta horregatik berri-tu egin beharko dira basoak.

Buruhauste asko izan ditu-zue proiektua diseinatzeko?

Ez, zaitasunei dagokienez behintzat. Tunelak egitea inoiz ere ez da teknikoki erraza iza-ten, failak-eta asko daude hain-bat puntutan eta ezpondak oso handiak dira. Horiek eusteko moduak pentsatzea izaten da denetatik nekezena: ainguratzek, loturak... Agerikoa da hango lurrik zein egoeratan dauden. Meca gaineko menditxoan lur-jauzia dago eta guk hori garbitu eta gainetik egin-go dugu bidea. Han bertan ikus-ten da mendi-hegal hori oso ona ez dela.

Uste duzu Olandixoko tune-larekin Arrasateko zirkulazio arazoa konpondu egingo dela?

Gaur egun dauden arazoak konpondu egingo liratekeela frogatu dugu. Horretaz gain, gaine-ra, marjina bat geratzen da konponbide hau saturatu bitartean. Gaur egungo arazoa konpondu egingo litzateke, egun bakotze-an dauden hiru zirkulazio kopuru gailur horietarako. Zirkulazio modeloak egin ditugu eta guztiz baeztatu dugu, aipatutako pilaketa gailur horiek desagertuaz.

Eta herriaren komuni-kazioa dagokienez?

Lagunduko du, hori behintzat bai. Azkanean, Garagartzara doan zirkulazio guztia handik pasa daiteke. Komunikazioa Aretxabaleta eta Arrasate lotzen dituen saihesbidearekin egiten du eta handik autobidera joan daiteke. Beraz, auto horiek ez luke-te herria zeharkatuko.

Ingorumenari begiratuta, kalte handia eragingo dute lanek?

Beharrezko moldaketak egin-go dira: aipatutako inausketak. Agian horixe da eraginik gogo-rrena, eta beste aldean Aramaio errekarri egin beharreko berbi-deratze naturala.

“Frogatuta geratu da puntako orduetako arazoa desagertu egingo dela”

“Oso ezponda handiak daude, eta lur asko mugitu beharko da bidea egiteko”

“Aurrekontuaren sail handi bat lanetan botatako basoak berritzeko izango da”

■ ARAZTEGIAK

Saneamendu sareak arrera

JON BEREZIBAR

Leintz Gatzagan hasi eta Deban amaitu arteko ur zikinen saneamendu sareko lanek aurrea jarraitzen dute. Ibarrean, Bergaran eta Arrasaten bilduko dira urak. Arrasateko Leintz aldeko eta Oñatioko urez arduratuko da eta Bergara egiten ari direnak hango eta Antzuola zein Elgetakoak jasoko ditu. 2010erako prest egongo da sarea.

Bi gune nagusitan jasoko dira ibarreko ur zikinak: Bergaran, Mekolalden, eta Arrasaten, Epele. Deba ibaiko saretitik tarterik kutsatuena da Arrasate eta Bergarakoa, Eibarren bakarrik gainditua. Hala, Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati eta Arrasateko urak Epeleko araztegian jasoko dira. Estatuko Gobernuak eraikido du, 23,6 milioi euroko aurrekontuarekin, uda igaro eta gero hasi-ko da Dragados y Construcciones

empresa eraikitze lanekin. Amaitzekeko lau urteko epea izango du enpresak. Aurrez, baina, kolektoreak eraikitzeko lanetan ibili dira aipatutako herrietan, urak zuzenean joango dira-eta araztegira. Une hauetan Arrasate eta Eskoriatzako kolektoreetan dabilta lanean. Oñatiri dago-

kionez, Zubillaga auzoan egingo dute kolektorea eta kilometro erdiko tunel batekin Epeleko araztegiarekin lotuko dute.

Bergarako Mekolalde auzoan kokatuko da ibarreko bigarren araztegia, Dorretxearen parean. Lanean joan den urrian hasi ziren eta urte biko epea izango dute araztegia bukatzeko. Hain zuzen ere, Bergarako eta Antzuola eta Elgetako ur zikinak joango dira hara. Lanek 11,5 milioi euroko aurrekontua izango dute eta Pradesa eta Amenabar enpresek egingo dituzte.

IBAI OSOA GARBITZEKO ARAZTEGIAK
Deba ibai osoko saneamendu sarean, Arrasateko eta Bergarako araztegiez gain, beste hiru gune egongo dira: Elgoibarren, Deban eta Mutrikun. Momentuz Debakoa bakarrik dago amaituta eta Mutrikukoari uda hasieran ekingo diote. Elgoibarkoarekin ere lanetan dabilta.

Arrasate eta Bergara arteko ibaiaren zatia sare osoko kutsatuenetako da

Pertsona eta enpresak batuta, Mekolalden 40.000 erabiltzailerentzako urak jasoko dira



LKS

Arkitektura eta Ingeniaritza

www.lks.es

Este mosaico de imágenes ilustra diversos proyectos realizados por LKS, una empresa de ingeniería y arquitectura. Las imágenes muestran edificios residenciales, industriales y de servicios, así como diseños de paisajismo y urbanismo. Una gran imagen central muestra el logo de LKS en un cuadro naranja. Abajo, se incluye el lema 'Arkitektura eta Ingeniaritza' y la dirección web 'www.lks.es'.



GURE KOMPROMEZUA ZURE ILUSIOAK ERAKITZEA DA

Horregatik, jendearen ilusioa sortarazten duen gauz guztien alde gaude:



Bruesa Gipuzkoa Basket Bruesa Txirrinda Taldea Ander Vilariño C.D. Bidasoa

Eta horregatik, jendeak bere ilusioak lantzen dituen etxeak eraikitzen ditugu.



Bizitza kalitateak badu izena Aretxabaletan!



Duplex zoragarriak espazioaz eta erosotasunaz gozatu dezazun bete-betean.
Duplexak terrazekin. Lau logelako etxebizitzak.

Informa zaitez Aretxabaletako gure bulegoan
Nafarroa Ibilbidea 8 (etxabearen atzealdea)
tel.: 943 31 12 17
943 79 78 71

INTHELINE ©

Las imágenes, planos, esquemas y datos utilizados en esta publicidad no son contractuales, sólo a efectos informativos. Por tratarse de un conjunto de viviendas diferentes, el resto de información a que hace referencia el R.D.515/1989, de 21 de Abril, se encuentra a disposición del público en nuestra oficina de ventas. Bruesa se reserva el derecho de modificar total o parcialmente (sin previo aviso) cualquiera de los datos y especificaciones que aparecen en esta publicidad.